

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Bergara Mintegia

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1917-2013)*

Aurkibidea



Biografia



1917an jaio zen Arratzuko Telletxe baserrian. Aita araoztarra (Oñati) zuen eta ama arratzuarra. Hiru neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Umetan Loiolako eskolan ibili zen. Baserriko beharretan ibilitakoa da, Gernika-Lumoko plazan askotan egondakoa. Bonbardaketako lekuko, [San Juan Ibarra](#) harrapatu zuen erasoak. Bere neba zaharrena nazionalisten idazkaria izan zen gerra garaian. Gerra sasoiko hainbat kontu kontatzen ditu. 27 urte zituenean, Kortezubiko Barrutibasoko Secun Mendiolaegaz ezkondu ostean, Gernikako [Errenteriara](#) (sasoi hartan Ajangiz) etorri zen bizitzera, eta ordudanik bertan bizi izan zen. Bi seme-alaben ama da. Elkarrizketatzailea bere senitartekoa da.

Zintak

GER-004

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-02-10
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Aita Oñatitik Arratzuko kanposatua egitera etorria

- **Erref:** GER-004/002
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:01:23. **Bukatu:** 00:02:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Bere aita hargina zen eta Arratzuko kanposantua egitera etorri zen, Gandariasen kanposantua egitera. Hiru behargin etorri ziren Oñatitik eta

hirurak ezkondu ziren arratzuarrekin. Bere ama han ondoan bizi zen eta askotan egoten ziren bere etxean.

2. Loiolako eskolan mutilekin batera eta euskaraz

- **Erref:** GER-004/005
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:02:47. **Bukatu:** 00:05:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Loiolako eskolara joan zen. Mutilek "Juanita txuleta toca la corneta" egiten zien burla. Eskolan neska zein mutil maistra batekin egoten ziren, euskaraz ikasi zuten. Maistra eskola gainean bizi zen eta beraiek gelan geratzen zien hark etxeko lanak egiten zituen bitartean. Trapuentzako bainiak egiten zituzten. Eskolan gauza gutxi ikasi zutela dio.

3. Arrautzak saltzen: dozena 1 pezeta 1

- **Erref:** GER-004/007
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Gerra sasoian Gernikara etortzen ziren. 12 dozena arrautza ekartzen zituen eta 12 pezeta jaso, Jesusa erregatera bermeotarrari saltzen zizkion. Jesusa buruan otzara zuela joaten zen Gernikatik Arratzura oinez. Bonbardaketa egunean ere astelehen guztietan bezala, Gernikan etorri zen lehengusinarekin. Saldutakoarekin etxerako gauzak erosten zituzten: txokolatea, kafea... Etxean ez zitzairen ezer falta animaliak-eta zituztelako. Taloa eta morokila nahi beste jaten zuten.

4. Bonbardaketan bere lehengusinaren umea hil zen

- **Erref:** GER-004/008
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:08:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bonbardaketak San Juan Ibarran harrapatu zuen. Bere lehengusina eta haren umearekin egon zen eta berak etxerako bidea hartu zuen. Baina lehengusinari eta umeari bonba bat gainera jausi, umea hil eta lehengusinak hanka zauritu zuen. Etxera Ajangiztik joan zen, bideak metrailatu egiten zituztelako.</p>

5. Asturiar bat soroan lurperatu zuten

- **Erref:** GER-004/009
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:08:33. **Bukatu:** 00:09:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Arratzuko solo batean bonba bat bota zuten eta asturiar bat hil zuten bertan. Abadeari eskatu zien kanposantuan ez lurperatzeko eta soro batean ehortzi zuten, baina txakurrek gorpua atera zuten. Azkenean, asturiarrek beraien lurraldera eraman zuten.

6. Plaza Erreteriatik Gernikarako bidean egoten zen

- **Erref:** GER-004/010
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:09:37. **Bukatu:** 00:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Lehengusinak hanka zauritu zuen bonbardaketan eta Santoñara eraman zuten. Merkurio iturriaren inguruan zaldiak eta astoak egoten ziren. Bonbardaketa sasoian ez zen egon oraingo merkatu-plaza modukorik; Erreteriarra bidean egoten ziren baserritarak.</p>

7. Autoa=Sakamastekas; Neba nagusia nazionalisten idazkaria zen

- **Erref:** GER-004/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:33. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:

Lehen ez zen auto askorik ibiltzen; bakarren bat ikusiz gero, Sakamantekas zelakoan, ezkutatu egiten ziren. Bere neba zaharrena nazionalisten idazkaria zen eta kartzelara eraman zuten: lehenengo Larrinagara, eta gero Urduñara. Urduñatik langile-batailoietara eraman zuten. Bere senarra neba bisitatzen zihoan tren batean ezagutu zuen.

8. Bizikletak eta txahala konfiskatu zizkieten

- **Erref:** GER-004/012
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:13:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Etxean bi bizikleta zituzten, bere nebak Gernikako eskolara joan zitezen, eta kendu egin zizkieten. Etxeko txahalik onena ere eraman zieten. Gernikara etortzeko Lorategietan uzten zituzten zapatilak; haraino abarketekin etortzen ziren.

9. 1936ko Santa Ageda eguneko argazkia

- **Erref:** GER-004/015
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:15:24. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

1936ko Santa Ageda eguneko argazki bat erakusten du. Argazkiak arrazuarak agertzen dira ikurrina eta guzti. Juanitak hogeitaz zituen.

10. Andrak tabernatara ez ziren sartzen

- **Erref:** GER-004/017
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Tabernara sartzen zen andreak fama txarra izaten zuen. Mutilek hartzen zituzten kanikadun limonadak eta kanpora ateratzen zieten andrei. Bera ezkondu ostean sartu zen lehen bider taberna batera.

11. Erretereria zaharra

- **Erref:** GER-004/024
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:24:51. **Bukatu:** 00:25:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Erretereria auzoko etxeak aipatzen ditu. Lehen ez zegoen horrenbeste etxerik, solo asko zegoen.

12. Goserik ez; kafea eta txokolatea estraperloan

- **Erref:** GER-004/026
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:25:46. **Bukatu:** 00:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Sekula ez zuten goserik izan. Etxean egoten zuten etxean eta hori dela eta ez zuten goserik izan. Kafearen eta txokolatearen kapritxoa izaten zuten, eta Bilbotik zetozen estraperlistei hartzen zieten.

13. Karabiak eta labeko sua

- **Erref:** GER-004/027
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:27:00. **Bukatu:** 00:27:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bere aitonak-eta karabiak egiten zituzten. Mendian karea egiten zuten soloan botatzeko. Bere amak labeko sua egiten zuenean, Arratzuko abadea joaten zen beraien etxera tremesaren bila.

14. Soldaduak eta guardia zibilak

- **Erref:** GER-004/028
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:29:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Auzoko batek soldaduei bertako neskak gorriak zirela esan zien, soldaduak beraien bila ez ibiltzeko. Inguruko jendea asko joaten zen Arratzura eta inguruetara laguntza eske. Guardia Zibilak ikusten zituztenean, beldurtu egiten ziren.

15. Konfesatzen

- **Erref:** GER-004/030
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:31:46. **Bukatu:** 00:33:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Lehen jai guztiak ospatzen zirela dio. Fraideak eta abadeak kanpotik joaten ziren eta pulpitutik sermoi beldurgarriak ematen zituzten. Sagarrondo batetik sagar bat hartuz gero ere konfesatu egin behar izaten zuten. Konfesatzerakoan, mutilekin baltsean-edo aritzegatik, abadeak buruko zapiak eta *Hijas de Mar* kongregazioko dominak kentzen zizkieten.

16. Gorpuzti Eguna; mezak

- **Erref:** GER-004/031
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:33:16. **Bukatu:** 00:34:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Gorpuzti Eguneke ospakizunetan sermoi ikaragarrik egoten ziren eta kanposantura prozesioa egiten zen. Arratzun mezak beti euskaraz izan direla dio. Sermoirako Zornotzatik etorritako fraideak joaten ziren.

17. Ezkontza eta ezkon-bidaia

- **Erref:** GER-004/034
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:36:24. **Bukatu:** 00:38:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Ezkontza etxean ospatu zuten, abadea eta jueza ere etxera joan zitzaizkien. Ezkon-bidaian Bartzelonara joan ziren trenez bere senarrak han hartu behar baitzuen itsasontzia Ameriketara joateko. Handik hilabetera Sevillara joan zen berriro ere senarrarengana.

18. Gaztetako arropak; depilazioa

- **Erref:** GER-004/037
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:42:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Gaztetan arropa politak erabiltzen zituztela dio. Bere amaren sasoian gona luze-luzeak ziren eta ez zuten kulerorik erabiltzen. Arratzutik abejarketekin etortzen ziren, baina Gernikan zapatilak janzten zituzten. Ez zuten makillajerik eta kremarik ematen. Bernetako ileak kentzen zituzten, besapeetakoak ez.

19. Arrieta haginlaria; hortz-haginak 500 pezeta

- **Erref:** GER-004/038
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:42:05. **Bukatu:** 00:43:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Medikuarenera Gernikara etortzen ziren. Hogei urte zituela, bonbardaketa aurretik, Arrieta haginlariak jarri zizkion hortz-hagin berriak 500 pezeta ordainduta. Erdiko kalean zuen kontsulta Arrietak.

20. Elizpean bataiatua

- **Erref:** GER-004/041
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:44:05. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Bera bataiatu zutenean elizpean ur bedeinkatuarekin pila handi bat zegoenean eta bertan bataiatu zuten. Jaio eta hurrengo egunean bataiatzen zuten umeak hilez gero zerura joan zitezen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com